

HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO PROIEKTUA

2024-2025

AURKIBIDEA

1. Laburpena	2
2. Justifikazioa	2
3. Helburuak	2
4. Garapena	2
5. Denboralizazioa	2
6. Partaideak	3
7. Erakunde laguntzaileak	3
8. Aurrekontua edo diru laguntzak	3
9. Ebaluazioa	3

HIZKUNTZA NORMALKUNTZARAKO PLANA

1. Laburpena

Proiektu hau Hezkuntza departamentutik abiatutako Ulibarri programaren barruan kokatu behar da, hori da bere markoa, eta kasu honetan Hernani BHI institutura egokitutako plana da. Hainbat adar ditu planak; horietako bat da informazioa eta estrategiak eskuratzea hilean behin Lasarteko Berritzegunean egiten den bileran eta, batez ere, alderdi praktikoa lantzea ikastetxean bertan, alegia, ahalik eta mekanismo eta partaide gehien aktibatzea euskararen erabilera handitzeko eta sendotzeko.

2. Justifikazioa

Ebidentzia gero eta agerikoagoa da hizkuntza bat ezagutzeak ez dakarrela automatikoki hizkuntza horren erabilera bermatua izatea. Horixe da euskararen egoera. Beraz, eskolak ziurtatu behar du alde batetik, euskararen ezagutza izan dezatela ikasleek; baina ahalegindu beharko du ere, hizkuntza hori erabilgarria eta erabilia izan dadila, bai eskolan bai eguneroko bizitzan. Helburua hiztun aktiboak sortzea baita.

3. Helburuak

Helburu orokorra, esan bezala, euskal hiztun aktiboak sortzea da baina puntu horretara iristeko inguratzen gaituen errealitatea ezagutu behar da (euskal dimentsioa dei genezakeena), hori akuilu izan daiteke hizkuntzaren erabilerari zentzua topatzeko. Ikasleek ikastetxean nahiz ikastetxetik kanpo euskara erabiliko badute, atxikimendu edo motibazioa eduki behar dute. Eskolak motibatze lan horretan egin dezake ahalegina hainbat bitarteko erabiliz. Hain zuzen, plan honetan proposatzen direnak.

4. Helburu xeheak, jarduerak, nork burutu, noiz burutu, betetze maila eta hobeakuntzarako proposamenak.

Eragin esparru bakoitzean, ondokoa da aurreikusitakoa.

1. Ikastetxearen antolamendu eta erabilera koherenteak

1.1. Ikastetxearen antolamendua

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
Zuzendaritza	Eskola kontseiluko kideek HNBren berri izatea azaroan	Ikasturteko lehenengo bileran planaren berri emango zaie. Diagnosiaren eta proiektuaren azalpena egingo da beraien lankidetzeta eta parte hartzea eskatuz.	Zuzendaria. HN arduraduna	Lehen hiruhilabetea	
Barne bilerak	HN Proiektuan gurasoen parte hartzea bultzatzea.	Antolatzen diren ekintzetan parte hartzera gonbidatu.	HN arduraduna. Guraso Elkartea	Ikasturtean zehar	
Barne bilerak		Eskola kontseiluan helburu eta ekintzen berri eman. Honetaz gain batzordean parte hartzera gonbidatuko ditugu. Gurasoen proposamenak (proiektuari buruzko iritziak, ekintza berriak...) jaso eta elkarlanean bideratu.	Zuzendaria. HN arduraduna. Guraso Elkartea	Ikasturtean zehar	
Dokumentazioa	Ikastetxe barnerako sortutako dokumentu guztiak euskaraz izatea, kanpokoak euskaraz edo elebidunak hartzailen arabera.	Kanpo harremanetan zehaztu hartzaille euskaldunak eta erdaldunak	Zuzendaritza	Ikasturtean zehar	
Dokumentazioa	Zuzendaritzak o kideren batek batzordean parte hartzea.	Zuzendaria ikastetxeko hizkuntz normalkuntzako arduraduna denez, estamentu ezberdinetan honen berri emango du zuzenean: klaustroa, mintegi buru bilerak, eskola kontseilua.	Zuzendaria	Ikasturtean zehar	

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
Hizkuntza-paisaia	Barne dokumentuak euskara hutsean egin. OOGean aurkeztean gaztelarazko azalpenak eman hala eskatuz gero. Kanpoko dokumentuak hartzailearen arabera: euskaraz edo elebidunak	Dokumentuak euskaraz aurkeztu eta itzulpenak ahoz egin	Zuzendaritza	Ikasturtean zehar	
Hizkuntza-paisaia	Barne dokumentuak euskara hutsean egitea. OOGean aurkeztean gaztelarazko azalpenak ematea hala eskatuz gero. Kanpoko dokumentuak hartzailearen arabera: euskaraz edo elebidunak izatea.	Dokumentu elebidunetan euskarari lehentasuna eman.	Zuzendaria eta idazkari administrati bo ak	Ikasturtean zehar	
Bestelakoak	Ikasleei, irakasleei eta hala eskatzen duten gurasoei komunikazioa euskaraz bermatzea (beste guraso guztiei elebidunez).	Dokumentu elebidun guztietan lehentasuna euskarari eman	Zuzendaria eta idazkari administrati bo ak	Ikasturtean zehar	

1.2. Normalizazioa sustatzeko erabakiak

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
Normalizazioaren bermea ikastetxeetako dokumentu ofizialetan	Euskararen konpetentzia egokia lortzeko ahozko eta idatzizko azalpenak eskatzea ikasgai ezberdinetan.	Mintegi guztietan proposatu ikasleei ahozko eta idatzizko azalpenak eskatzea.	Mintegiburuak eta HNBko partaideak	Ikasturtean zehar	

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
Euskararen kalitate ziurtagiriak	Euskararen normalizazioa n inplikazioa areagotzea. Ekintza atseginen bidez, erabilera indartzea. Erabilera bultzatzeko kontzientziari oia piztea. Euskal ohiturak ezagutzea eta parte hartzea. Hizkera formala bultzatzea. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzea. Hiztegi teknikoaren erabilera zaintzea.	NOLEGA, IKAS2DEAK eta Idazleak ikastetxeetan programetan parte hartu. Hernaniko KRONIKAKo Ikasleen Txokoa gehigarrian parte hartu. Gelan eta gurasoen aurrean ahozko azalpenak egin. Ipuin kontalaria eta idazlea gelara ekarri. Sentsibilizazio saioak (DOBERA Euskara elkarte). Euskal kulturarekin zerikusia duten ekintzetan parte hartu (egoerak horretarako aukera emanez gero): Santa Ageda, Olentzero, Sagarrondotik, mitologiaren inguruko jarduerak, "Euskara ari du" taldearen ekimenak... Irakurketa Planaren egitasmoaren ekintzetan parte hartu.	Arloko irakaslea, kanpotik ekarritako adituak. Irakurketa Planaren arduraduna.	Ikasturtea n zehar	
Euskararen kalitate ziurtagiriak	Ikastetxeko hizkuntzen arteko proiektuaren arduradunarekin in elkarlana sustatzea.	HNP eta hizkuntzen arteko proiektuaren arduradunaren artean hilean behin bilera bat egin.	HNP eta hizkuntzen arteko proiektuaren arduradunaren artean hilean behin bilera bat egin.	Ikasturtea n zehar	

1.3. Kanpoko eragileekin harremanetarako hizkuntza-irizpideak

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
Aholkularitza eta ikuskaritza zerbitzuekin	Berritzeguneko zuzendaritzarekin eta aholkulariekin harremanak euskaraz izatea.	Berritzeguneko zuzendaritzarekin eta aholkulariekin ditugun harremanetan euskara erabili.	Zuzendaria, irakaslea, orientatzailea..	Ikasturtea n zehar	
Administrazioarekin eta instituzioekin	Hezkuntza administrazioarekin, ordezkaritza, ikuskaritza eta beste edozein Hezkuntza administrazioarekin o organorekin harremanak euskaraz izatea.	Hezkuntza administrazioako organo ezberdinekin harremanak euskaraz izango dira. Organo horietako kideek euskaldunak izan behar dute horretarako. Beraiei ere eskatu behar diegu euskara ikas dezaten.	Zuzendaritza kideak, irakasleak	Ikasturtea n zehar	
Komunikabideekin	Elkarteekin harremanetan jartzerakoan euskarari lehentasuna ematea.	Edozein elkarterekin harremanetan jartzerakoan euskaraz hasi.	Ikastetxeko langile guztiak	Ikasturtea n zehar	

2. Eskolako kideak eta eremu didaktiko-metodologikoa

2.1. Ikasleak: motibazioa, jarrerak, portaerak eta emozioak

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
Esku-hartzeak ikasgelan	Batxilergoko ikasleentzat C1 ikastaroa antolatzea.	Ikastaroa antolatu C1 maila atera nahi duten ikasleentzat.	HNTA eta euskaltegiko irakasleak	Dagokion hiruhilabetea	
Esku-hartzeak ikasgelan	Euskararen erabileraren garrantziaz jabetzea eta euskal giro batetan hezitzea eta bizitzea.	Hernaniko Kronika komunikabidearen "Ikasleen Txokoa" gehigarrian parte hartu.	Hernaniko Kronika eta Euskara irakasleak	Dagozkion hilabeteak	
Esku-hartzeak ikasgelan	Euskararen erabileraren garrantziaz jabetzea eta euskal giro batetan hezitzea eta bizitzea.	Interneteko euskal helbideak gaurkotu eta zabaltu ikasleen artean.	Ikasle batzordea, informatikako irakasleak eta HNAT-a. Eta beste irakasle guztiak.	Ikasturtean zehar	
Esku-hartzeak ikasgelan	Hizkuntza lantzea.	C1 azterketaren berri emango zaie BATXILLERGOKO gurasoei tutoretza bileretan eta ikasleei ikasturtean zehar gogoratuko zaie zein den delaldi bakoitzeko egutegia. Honetaz gain, ikastetxeko web orrian HABEren esteka jarrita dago informazio osoa bertatik jasotzeko.	HN arduraduna eta tutoreak	Dagokion hilabetea	
Esku-hartzeak ikasgelan	Hizkuntza lantzea.	Euskal idazleak ikastetxean programan parte hartu.	Euskarako irakasleak	Dagokion eguna	
Esku-hartz eak ikasgelaz kanpo	Ikasleen arteko euskararen erabilera areagotzea	NOLEGAK proposatzen dituen ekintzen bidez AHOZKO ADIERAZMENA (bertsogintzan, kantagintzan eta kontalaritzan) ikasleak ahozko hizkuntzan trebatu.	Euskarako eta Musikako irakasleak	Ikasturtean zehar	
Esku-hartz eak ikasgelaz kanpo	Ikasleen arteko euskararen erabilera areagotzea	Urteroko tutoretza-irteerak eta mintegiek antolatutako irteerak aitzakiatzat hartuta, ikasleen arteko euskararen erabilpena bultzatu.	Tutoreak, irakasleak eta HNB	Ikasturtean zehar	

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
Esku-hartzea k ikasgelaz kanpo	Ikasleen arteko euskararen erabilera areagotzea	IKE (Ikastetxez Kanpoko Ekintzak) Programan parte hartuko dugu, lau ekitaldi eginez. Ospakizunak ikasturtean zehar eta ikasle zein gurasoen Euskara Batzordeetan proposatutako ekintzak bideratu.	HNB kideak	Ikasturtean zehar	

2.2. Ikasleak: komunikaziorako konpetentzia

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
Ahozko interakzioa sustatzen duten metodologiak	Ikasleen euskarazko komunikazio gaitasuna %5 hobetzea	Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Ebaluazio jarduerak	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Besteren bat (ikastetxez kanpoko eragile bat...)	Ikasturtean zehar	
Ahozko interakzioa sustatzen duten metodologiak	Ikastetxeko web orria "elikatzea" euskaraz landutako proiektuekin, lanekin, albisteekin..	Irakasleekin zuzenean hitz egingo da ikasleekin egiten dituzten lanak, proiektuak eta antzekoak web orrian zintzilikatu.	Komunikazio arduraduna, HNP arduradunaK, irakasleak...	Ikasturtean zehar	
Ahozko interakzioa sustatzen duten metodologiak	Konpetentzia komunikatibo e tan ardatz metodologiko a k finkatzea eta lantzea	Zenbait ekintzetan parte hartu ikasleekin (Hernaniko Kronika, Web orria, NOLEGako bertsogintza, kantagintza eta antzerkigintza eta kontalaritza) ahozko eta idatzizko konpetentzian baliabide gehiago eta ziurtasun gehiago lortzeko.	Euskara mintegia eta euskarako irakasleak.	Ikasturtean zehar	
Idazmena-irakurmena	Euskararekiko inplikazio eta baloreak areagotzea	Mintzodromoan, Gabonetan, Santo Tomas, Santa Ageda, Ihauterietan, Korrikan eta euskal identitatearekin zerikusia duten jardueretan parte hartu.	Zuzendaritza, DBH talde bilerakideak..	Ikasturtean zehar	

2.3. Ikasleak: euskal kulturaren transmisioa.

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
Kontsumoa	Ikasleen artean euskal kulturarekiko (zinea, komunikabideak, literatura, musika, artea...) interesa eta kontsumoa handitzea.	Herrian edota ikastetxean proposatzen den ekintza kulturalak euskaraz izatea.	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Besteren bat (ikastetxez kanpoko eragile bat...)	Ikasturtean zehar	

2.4. Irakasleak

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
-----------------	----------	----------	------	------	--------------------------------------

Komunikaziorako konpetentzia	Euskararen aldeko dinamiketan partaide bilakatzea, bai antolaketan baita atariko ekintzetan ere	Euskararen aldeko dinamiken prestakizunetan parte hartu: Mintzodromoa, Euskaraldia...	Irakasleak eta HNB batzordea	Ikasturtean zehar	
Komunikaziorako konpetentzia	Irakasleen arteko komunikazio hizkuntza nagusia euskara izatea	Ikastetxeko edozein lekutan irakasleen arteko interakzioan gaztelaniara pasatzeko joera saihestu, eta euskaraz hitz egiten jarraitzeko ahaleginak egin.	Irakasle guztiok	Ikasturtean zehar	

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
Irakasleak, eredu eta eragile	Gai bakoitzeko hiztegi teknikoa erabiltzea eta zaintzea.	Historian zehar euskararen egoerari buruzko hausnarketa egin, informazioa irakurri, bideoak ikusi eta ikasleen arteko elkarriketa bultzatu.	Gizarte irakasleak	Ikasturtean zehar	
Irakasleak, eredu eta eragile	Irakaskuntzara ko euskarazko materiala prestatzeko egitasmo ezberdinei buruzko informazioa zabaltzea	Irakurketa Planaren arduradunak, Eima deialdiak... informazioa emango da klaustroan.	HN arduraduna	Ikasturtean zehar	
Irakasleak, eredu eta eragile	Irakasle guztiek Irakurketa Planaren berri izatea eta bertan parte hartzea.	Irakurketa Planaren arduradunak antolatutako ekintzetan parte hartu edota irakasle bakoitzak landutako ekimena Irakurketa Planaren arduradunarekin partekatu	Irakurketa Planaren arduraduna	Ikasturtean zehar	
Irakasleak, eredu eta eragile	Irakasleak birziklatzeko dauden aukeren berri ematea	Irakurketa Planaren arduradunak, Eima deialdiak... informazioa emango da klaustroan. Irakurketa Planaren arduradunarekin partekatu	Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Besteren bat (ikastetxez kanpoko eragile bat...)	Behar den garaian	
Irakasleak, eredu eta eragile	Irakasleak birziklatzeko dauden aukeren berri ematea	Irakasleek ikasleekin erabiltzen duten ahozko hizkera ahalik eta formalena izan dadin saiatzeko, erdarakadak saihestuz adibidez, lan honetan irakasleok elkarri laguntzea.	Irakasle guztiok	Ikasturtean zehar	

2.5. Administrazio eta zerbitzuetako langileak

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
Komunikaziorako konpetentzia	Langile ez irakasleak euskara menperatzea eta erabiltzea ikastetxeko beharrei erantzun egokia emateko	Euskara ikasteko deialdien berri emango zaie.	HNP arduradunak	Ikasturtean zehar	
Komunikaziorako konpetentzia	Langile ez irakasleak euskara menperatzea ikastetxeko beharrei erantzun egokia emateko	Langile ez dozenteei banatu irakasleei banatu zaizkien hizkuntza erabiltzeko arauak, zenbait artikulua...	HN arduraduna	Ikasturtean zehar	
AZLak, eredu eta eragile	Euskararen erabilera lehenestea	Ikasle eta irakasleekin beti euskara erabili. Kanpotik etorritako edozein pertsonarekin (guraso, hornitzaile...) lehen hitzak euskaraz egin.	Idazkari administratibo a eta atezaina, eta garbitzailea	Ikasturtean zehar	

3. Familiak eta Komunitatea

3.1. Familiak

Eragin esparrua	Helburua	Jarduera	Nork	Noiz	Betetze maila-Hobetzeko proposamenak
Familiarikiko harremanetara ko hizkuntza-irizpideak	Guraso guztiekin izan beharreko harremanetan euskararen presentzia bermatzea	Guraso euskaldunekin izan beharreko harremanetan euskara soilik erabili	HNBko kideak, zuzendaritza eta langile oro.	Ikasturtean zehar	
Familiarikiko harremanetara ko hizkuntza-irizpideak	Guraso guztiekin izan beharreko harremanetan euskararen presentzia bermatzea.	Guraso erdaldunekin izan beharreko harremanetan, lehen hitzak euskaraz (ahoz) eta idazki elebidunak (idatziz) erabili	HNBko kidea, zuzendaritza eta langile orok.	Ikasturtean zehar	
Familiarikiko harremanetara ko hizkuntza-irizpideak	Gurasoekin izan beharreko harremanetan euskararen presentzia bermatzea.	Gurasoekin izan beharreko harremanetan, ahozko elkarriketetan euskara ahal den gehiena erabili, eta idatzizkoetan euskararen presentzia bermatu.	HNBko kideak eta langile ez dozentek	Ikasturtean zehar	

5. Ekintza nagusien denboralizazioa

	IR	UR	AZ	AB	UR	OT	MA	AP	MA	EK
Berritzegunea-Prestakuntza-Koordinazioa										
Urteko plangintza/memoria egin	X									X
Dirulaguntzak eskatu (Nolega)										X
Batzordeak sortu: irakasleak, ikasleak, gurasoak.	X	X								
Hartu-emana bideratu herriko eta gainontzeko erakundeekin: UEMA, Dobera, euskaltegiak... Sortu berri den GUGEOK ekimenarekin.	ikasturtean zehar									
Irakurketa Planaren arduradunarekin estrategiak adostu.	ikasturtean zehar									
Eragin ikasleak										
Sentsibilizazio saioak DBH2n eta 1. Batxilergoan.						X	X			
C1 azterketa prestatzeko ikastaroen berri eman.	X									
Kronikaren "Ikasleen Txokoa"n parte hartu. Kronika ezagutu.							X	X	X	
Nolegak proposatutako AHOZKO ADIERAZMENA ekintzetan parte hartu: kontalaritza, poesia emanaldia, etab.	ikasturtean zehar									
Euskal identitatearekin zerikusia duten ekimenetan parte hartu: Euskararen eguna, Santa Ageda, Ihauteriak, Korrika, Euskaraldia.	ikasturtean zehar									
<i>Idazleak ikastetxean</i> ekimenean parte hartu: idazle baten bisita maila bakoitzeko.				X	X	X	X			
Eragin irakasleak										
Sentsibilizazio saioak burutu.						X				
Informatu irakasleak Iraleko eta antzeko ikastaroen inguruan.	ikasturtean zehar									
Animatu irakasleak parte har dezaten idazleekin burututako bilkuretan, EHko hainbat leku ezagutzeko irteeretan, etab.	ikasturtean zehar									
Eragin gurasoak										
Sentsibilizazio saioak antolatu: "Nola eragin gure seme-alaben hizkuntza ohituretan?". Guraso Batzordea baliatu gainontzekoak animatzeko.						X	X			
<i>Euskaraldia</i> bezalako ekimenetan koordinatu eragile izan daitekeen Guraso Batzordearekin.					X	X	X	X	X	X
Euskara Batzordeko gurasoen aholku, iritzi, proposamenak	ikasturtean zehar									

bideratzen saiatu.	
--------------------	--

6. Partaideak

Bost kidek hartzen dute parte proiektuan.

Koordinatzaile lanetan eta Lasarteko Berritzegunearekin harremanetan, Koldo Irastorza.

Gainontzeko kideen eragin-eremua hiru eraikuntzetan banatu da:

Santa Barbaran, lehenengo zikloan, Ane Lujanbio ari da lanean.

Harrobin, Ander Etxeberria.

Agustin Iturriagan, Agurtzane Uzin (DBH4) eta Unai Mitxelena (Batxilergoa)

7. Erakunde laguntzaileak

Atal honetan, proiektua gauzatzean zeregin aktiboa izatera iritsi ez arren, proiektua arrakastaz egiteko laguntzen duten elkarteak, erakundeak, erakundeak edo administrazioak zehaztu behar dira. Kontuan izan behar da proiektuaren dokumentazioa egiterakoan (posterrak, panfletoak, diptikoak, eta abar) ezinbestekoa dela erakunde laguntzaileak sartzea; izan ere, kasu gehienetan laguntza hori saritzeko modua izaten da, proiektua ondo zabalduz eta, beraz, horrelako ekimenetan inplikatur.

8. Aurrekontua edo diru laguntzak.

Proiektu hau burutzeko Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jasotzen da, urtero aldatzen dena egindako eskaeraren arabera, NOLEGA bitartez eskatutako laguntzaren arabera. Badintza batzuk hartzen dira kontuan laguntzak emateko, hala nola, ikastetxearen dimentsioa, etab. Guri dagokionean 2000 euro inguruko laguntza jasotzen da.

9. Ebaluazioa

4. puntuko koadroaren azken zutabea ageri da "Hobetzeko proposamenak" dioen goiburua. Bai *betetze maila* eta baita *hobetzeko proposamenak* ere ikasturteko memorian jasotzen dira eta aztertze/bilketa lan hori HNT taldeak burutu ohi du.

Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
Berritzeguna-Prestakuntza-Koordinazioa	2025/06/02	Proiektuen koordinazio bileran, aho batez erabakita	Koordinazio bileran Koldo Irastorza	Egina	
Eragin irakasleak	2025/06/02	Proiektuen koordinazio bileran, aho batez erabakita	Koordinazio bileran Koldo Irastorza	Egina	
Eragin irakasleak	2025/06/02	Proiektuen koordinazio bileran, aho batez erabakita	Koordinazio bileran Koldo Irastorza	Egina	
Eragin gurasoak	2025/06/02	Proiektuen koordinazio bileran, aho batez erabakita	Koordinazio bileran Koldo Irastorza	Egina	